Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

‘Epizentroa’: kontaketaren xarma

Askatasun osoz deskribatzen dira emozioaren alorrean sexuak duen tokia

JON KORTAZAR

Ezuste ederra hartu dut Nerea Loiola Pikaza egilearen zazpi kontaketaz osaturiko ‘Epizentroa’ liburua irakurri dudanean. Eta ezusteko ederra izateaz aparte, aho bete hortz utzi nauela aitortu gabe ezin geratu. Idazlearen lehen agerpena dugu euskal literatura nagusiaren plazan eta ahotsa landuta duen egile baten aurrean gaudela esan beharko nuke ezer esaten hasi aurretik.

Zazpi kontakizun dira, erdi erdian bildumari izenburua eman dion «Epizentroa» dagoelarik. Eta ipuinaren erdian, panpina errusiarren jokoa balitz bezala, epizentro hitza azaldu duen metafora: «Errai/ Emozio/ Epizentro», eta hiru hitz horietan dago zazpi ipuinen arteko batasuna: emozioen erraietara jo nahi du ipuinak, alboetara begiratu gabe, beti zuzen duela bidearen zuzentasuna.

Zazpi ipuinotan ageri diren emakume protagonistak bizitzaren aldaketa puntuan aurkitu dute euren burua, iragana ahaztu nahiz etorkizunak zer ekarriko duen jakin gabe. Oso erraza litzateke esatea emakumezkoen ‘queer’ literatura eskaini digula Nerea Loiola Pikazak, zenbait ipuinetako protagonistak lesbianak baitira («Cuisine et Santé», «Exit») edo esperientzia lesbiarra izan ondoren erabaki dute ezkontzea eta bizitza aldatzea («Epizentroa»). Eta askatasun osoz deskribatzen dira emozioaren alorrean sexuak duen tokia.

Baina horren gainetik, liburuak eta beren zazpi kontakizunek beste aberastasun bat utzi dute agerian, ugariak dira emakume tipoak hemen; haurra «Itsaso zuria» deituriko ipuinean, ama «Egin behar nuena egin nuen»; exekutibo hotza («Lan-istripua»), zein bere bizitza gogor ikusten duena («Epizentroa»).

Denak daude bizitzako ataka berezi batean eta erabaki behar dute zer egin. «Bizirik irauteko modu bakarra aurrera egitea izango da, zerrailuaren beste muturrerantz, etorkizun esaten diozun fikzio likidorantz» adierazi digu «17:03» ipuineko narratzaileak eta horrela bizi dira fikzio hauetako protagonistak, bizitzaren erdigune garrantzitsuan norabidea aldatu edo ez aldatu pentsatuz.

Liburuaren batasuna gaiaren bidez emanda badago ere, ezingo nuke aipatu gabe utzi Nerea Loiola Pikazaren kontatzeko trebezia. Maisu-lana egin du, zeren, normalean, kontaketa adar biren artean eraikiz egin du bere idazteko modua. Ipuinotan beti daude kontakizun bi, eta batak besteari erliebea ematen dio, kontraste moduko bat lehen mailan dagoen kontakizunari indarra emanez. Ohikoa izan ohi da horrelakoetan lehen aldiaren eta gaurkotasunaren arteko kontrastearen bidez bikoiztasuna marraztea, eta horrela egin da noiz edo noiz («Egin behar nuena egin nuen»), baina ez beti, eta bildumako lehen ipuina izango litzateke teknika horren adibide ederra: Saioa protagonista pertsonaia biren artean kokaturik dago, harreman berria hasi nahi luke Aliziarekin, baina Maxime agurearekin duen loturak egin dio kontrastea.

Bukaerak ere aipatzekoak dira testu honetan, «Epizentroa» litzateke bukaera maisua: hausten den edalontzia da Bearen egoeraren adierazgarri sotila. Gaurkotasuna ere bada bildumaren ezaugarri berezia, eta gure bizitzan egunero usu erabili ohi ditugun tresnak eta gaiak behin eta berriro ageri dira liburu honetan, eta adibide bakarra emate aldera, badago ipuin bat sakelako telefonoez zabaldu diren argazkiei buruz, eta ekintza hori bihurtu du egileak ipuinaren tramaren giltza nagusia.

Aipatzekoak dira, neurri berean, hizkuntzaren erabileran Nerea Loiola Pikazak erakusten duen trebezia eta maisutasuna. Maiz etorri zait gogora Anjel Lertxundiren idazteko modua ipuinak irakurri ditudanean, egileak trebezia handiz darabilelako hizkeraren modu tradizionala eta gaurko erabilera, beti ere pertsonaia bakoitzari bere tonu berezia emanez, bere ahotsa irudikatuz eta bere hizkera modua eraikiz.

Heriotzaz

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Ez da samurra heriotzaz hitz egitea, eta are eta aztoragarriagoa izan daiteke norberaren heriotzari buruz pentsatzea. Nahiz eta bizitza honetan ezer seguruagorik ez egon, heriotzak hainbat galdera sortzen dizkigu. Horiek dira, hain zuzen ere, Uxue Alberdi Estibaritzek (Haur eta Gazte Literatura Euskadi Saria, 2016) idatzitako eta Araiz Mesanza Iturritxak ilustratutako liburu honen arima eta mamia. ‘Hili’ istoriorik gabeko liburu bat da. Hau da, album ilustratu hau ez da narrazio sekuentzial bat, irakurleak liburua edozein orrialdetatik ireki dezake, horiek aurrera edo atzera pasa eta bakoitzean nahi adina denbora igaro. Dena den, badago haien arteko lotura bat, azalean eta atzeko azalean ikusten ditugun haurra eta panpina, hain justu. Egileen hitzetan, haur hori da liburuaren protagonista eta panpina, arteka, honen ordezkoa, isla edo alter egoa.

HILI
U. ALBERDI/
A. MESANZA
Elkar. 68 orr. 14 euro

Uxue Alberdiren testu delikatuak fintasun handiz islatzea lortzen du herio-tzaren edo hiltzearen ideiaren inguruan behin edo behin sortu zaizkigun zalantzak, kezkak eta burutazioak. Horretarako, galdera asko, aforismotzat jo daitezkeen erantzun bat edo beste, eta poema eta kaligrama batzuk haurtzaroko ahots xaloarekin josten ditu. Araiz Mesanzaren trazu meheko ilustrazioak ere bat datoz ahots horren sotiltasunarekin. Bi kode horien arteko konbinazio orekatuak, tipografia arinak eta hondo zuria nagusi den konposizioak, nahiz eta hiltzearen gaineko gogoeta egitera gonbidatu, lasaitasuna helarazten dute.

Hitz batez, adin guztietako irakurleentzat zuzendutako liburu honek haur eta gazte literaturan luzaroan tabutzat hartu izan den gaiari goxotasun eta lañotasunez heltzen dio. Azken finean, haur, gazte zein heldu, denok partekatzen dugu gai honekiko jakin-mina eta ezezaguna den zerbaitek sor dezakeen beldurraren aurrean, ez dago horri buruz elkarrekin hitz egitea baino antidoto hoberik.

LABUR LABUR

Plateruenak ateak irekiko ditu Durangoko Azokarako

EL CORREO

Lokalaren etorkizunaren gaineko behin betiko erabakia hartu bitartean, Durangoko Udalak Plateruena irekiko du Durangoko Azokaren 56. ediziorako, abenduaren 3tik 8ra, Ahotsenea eremua hartzeko. Azokaren ostean, berriz itxiko ditu ateak gune horrek, «behin betiko irekiera aurretik», Durangoko Udaletik azaldu dutenez.

2020ko abenduaren 31n Plateruena Kafe Antzokiak ateak itxi zituen, eta espazioa kudeatzen zuen kooperatiba desegin zen. Harrezkero, udal arduradunak bi ildo nagusitan ari dira lanean: mantenu eta hobekuntza lanak zehaztea eta etorkizuneko kudeaketa eredua definitzea.

Herriko 100 bizilagun, sortzaile, elkarte eta kultur eragile baino gehiagorekin egindako hausnarketan, aurreikusi dute Plateruena berria ere «Plateruena kultur sorkuntzarako harrobi, topagune, esperimentazio gune eta erakusleiho» izango dela, «euskara nagusi izango den espazio batean».

Plateruena, kanpotik.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 **Amaren eskuak**
Karmele Jaio. Elkar

2 **Fakiraren ahotsa**
Harkaitz Cano. Susa

3 **Miñan**
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 **Festa**
Jasone Osoro. Elkar

EZ FIKZIOA

1 **Eman zesarri zesarrena**
Jose Iriarte. Intxorta 1937 Kultur Elkartea

2 **Euskal herriko leiendak**
T. Martinez de Lezea eta J. L. Landa. Erein

3 **Leitzako bordak**
Patxiku Perurena. Pamiela

4 **Ongi etorri euskal mitologiaren mundo...**
Batzuk. Mitologik Basoa